

GURE ENPRESA

Gure enpresa, webgune bat izango litzateke, hau da, umeentzako jostailuak berrezkuratu eta sobran daudenak donatzeko online zerbitzu bat. Webguneak hainbat atal edo zerbitzu desberdin izango ditu. Alde batetik, bezeroek ondasunak edo produktuak eros ditzakete, umeei zuzenduriko jostailuak hain zuzen. Guzti hau gauzatzeko, webgunean bertan suskripzioa bete beharko dute eta hainbat aukera edo tarifa desberdin izango dituzte:

- Lehenengo aukera: hilabete bateko harpidetza 9,99€koa da eta horren truke 5 jostailu erosi ahalko ditu harpidetu den pertsona horrek, dugun katalogo guztitik, berari gehien gustatu zaizkionak.
- Bigarren aukera: hilabete bateko harpidetza 19,99€koa izango litzateke 11 jostailuren truke.
- Hirugarren eta azken aukera: gure zerbitzurik garestiena, ume asko dituen familia batentzat, edo lagun kuadrilla batean denen artean erosi ahal izateko aukerarik onena. 29,99€an. Harpidetu ondoren, 22 jostailu erosi ahal izateko ahalmena bermatuko dizuna.

Bestetik, bazkideak, etxean dituzten eta erabiltzen ez dituzten ondasunak bueltatu dezakete, ondoren beharra duten umeei bidaliko dizkiegulako produktu horiek, horrela bigarren erabilera bat emanez. Produktu horiek, "Save The Children" erakundearekin batera kolaboratuko dugunez, garapen bidean dauden herrialdeetako umeei bidaliko zaizkie.

Hau guztia antolatzeko, garraio-enpresa baten bidez egingo da, bidalketa, entrega eta erosketa hain zuzen.

- **Zeregin nagusiak:**

Lore: Bezero, hornitzaile... arreta

Meliza: "Save the children" erakundearekin dugun kudeaketaz arduratu

Ane: Publizitatea

Onintza: Webgunearen arduraduna

Naroa: Enpresaren administraritza